

jaia

San Sebastian eguna Lakuntzan

Jakina, Donostiako danborrada da ezaguna San Sebastian egunean jotzen direnen artean, baina badago besterik. Sansebastianak ospatzen dira, esate baterako, Azpeitian, Zangozan, Tafallan eta Lakuntzan ere. Azken herri horretan Pertza elkarteak antolatu du danborrada, eta bertan 60 danbor jolek hartuko dute parte. Hori bai, Donostiako pieza berak jotzen dira Lakuntzan.



PABLO S. QUIZA

errezeta

Marmitakoa

Osagaiak: 600 gr hegaluze, zortzi piper berde, bi piper morroi, bi tipula, baratxuria, sei patata, lau tomate, botila bat ardo zuri.

Piperrak eta tipula gorritu olioarekin, berakatzarekin eta hegaluze laukitxoekin. Gaineratu tomateak, eta bota ardoa, flanbeatu ostean. Gatza eta piperra bota, eta irakitean, patata puskak gaineratu. Hiru ordu laurdenez egosi, azken ordu erdia tapatu barik.



EGUNKARIA

HAZPARNE. Bertso bazkaria:

Jexus Mari Irazu eta Igor Elorza. Bihar, Xuariatea ostatuan.

HENDAIA. Bertso afaria: Amets

Arzallus eta Sustrai Kolina. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Luisitoren Bodegan.

IURRETA. Mañukorta, Sebastian Lizaso eta Xabier Amuriza. Bihar, 13:00etan, Bakixan.

LESAKA. Bortzirietako Bertso

Eskolako III. Taldekako Lehiaketako finala. Gaur, arratsaldeko 20:30ean hasiko da, Arranon. A taldean: Arozena, Lopez eta Rekondo ariko dira. C taldean: Fernandez, Olaetxea eta Lagoma ariko dira.

MUNGIA. Aritz Lopategi, Iratxe Ibarra, Jon Maia eta Unai Iturriaga. Bihar, eguerdikio 12:30ean, herriko plazan.

ZALDIBI. Bertso afaria: Igor Elorza, Jexus Mari Irazu. Gaur.

dantza

BILBO. Ballet Victor Ullate.

Gaur, arratsaldeko 20:00etan, eta bihar, arratsaldeko 19:00etan, Arriaga antzokian. Madrilgo Erkidegoko Baletaren eskutik.

GASTEIZ. Mayte Martin. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Beñat Etxepare antzokian.

zinema, bideoa

BERRIZ. 'El negocio de mentir'

bideo emanaldia. Bihar, arratsaldeko 18:00etan hasiko da, gaztetxean.

ELORRIO. 'Besos para todos'

emanaldia. Gaur, gaueko 22:30ean, Arriola kultur aretoan.

'Mi perro Skip' emanaldia. Bihar, arratsaldeko 17:00etan, Arriola kultur aretoan.

HERNANI. 'Cara a cara' filma.

Astelehen gaueko 21:00etan hasiko da, Triku tabernan.

IRUN. 'La boca del lobo' Film

laburren jaialdi ibiltaria. Bihar, eta astelehenean, 20:30ean Tunk! aretoan (Auzolan kalea, 20, Arretxe Gaina). Dohainik. Igandeko film laburrak: *Le Facteur passe toujours deux fois*, *En malas compañías*, *Pandemonium*, *2Tiempo*, *Nut House*, *Podría ser peor* eta *Pantalones*.

LEIOA. 'La fuga de segovia'

bertsolaritza

Bortzirietako Bertso Eskolako III. Taldekako Lehiaketa Lesakako Arrano tabernan

IÑIGO OLAETXEA BERTSOLARIA

Xabier Martin | DONOSTIA

Emeki-emeki eskarmentua hartzen ari den bertsolaria da Iñigo Olaetxea. Gaur, berak baino eskarmentu handiagoa dutenekin ariko da, baita oraindik bere mailara iristeko tarte bat gertatzen zaienekin ere. Izan ere, Bortzirietako Taldekako Lehiaketak aukera hori eskaintzen du, alegia, maila desberdinerako bertsolariak elkarrekin aritzekoa, ongi orekatutako taldeetan. Lehiaketako finala gaur jokatu da.

■ Noiz eta nola sortu zen Bortzirietan Taldekako Lehiaketa?

Duela hiru urte sortu zen; gabezia baino gehiago, bertso eskolan aritzen ginenok uztartu beharra ikusi zelako.

■ Zer eskaintzen du bereziki lehiaketa horrek?

Parte-hartzaileen arabera, hainbat gauza. Esate baterako, batzuei, lehen aldiz bertsoan aritzeko parada ematen die; bertzei, gaijartzaile lehenengoz aritzekoa, baita epaimahaian aritzekoa, eta zenbaitentzat, pilak jartzeko aukera da.

«Bertsolari gazte gehiago aterako dira Bortzirietan»



EGUNKARIA

■ Zergatik ateratzen ari dira Bortzirietan horrenbeste bertsolari azken urteetan?

Gure kasuan, behinik behin, alegia, Xabier Silveira, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta beste batzuen kasuan, oso gertukoak ginen, koadrilakoak askotan, eta ez da kasualitatea izan. Zaletasuna zabaldu zen, bertsolaritza puri-purian zegoela, eta hemengo gazte gehienon harremanak oso estuak izan dira beti. Hori izan da gakoa.

■ Nolako maila eman du orain arte lehiaketak?

Denetarik izan da, normala denez. Saio onak izan dira, eta baita txarrak ere. Dena den, lehiaketa arinegia izan gabe ere, askotan garrantzitsuen sortzen den giroa da.

■ Izango al da etorkizunean bertsolari gazte gehiago Bortzirietan lehiaketarik antolatzeko?

Bai, zalantzarik gabe. Esate baterako, iaz parte hartu zuen batek aurrean ez du hartu, eta haren lekua beste gazte batek hartu du. Datorren urtean ere antzera gertatuko da, seguruenik.

filma. Bihar, arratsalde partean Udondo gaztetxean.

hitzaldiak

BARAÑAIN. 'Armarik gabeko

Bardea?' solasaldia. Urtarrilaren 25ean, arratsaldeko 20:00etan, Luzio Tabarren eskutik. Ikako Sahats euskaltegian.

ELIZONDO. 'Whisky koloreko gauak' libuaren azalpenak. Gaur, arratsadeko 17:00etan, Arizkunenea Enean kultur elkartearen, Paddy Rekalderen eskutik.

GALDAMES. 'La cueva de Arenaza' hitzaldia. Gaur, Kultura aretoan, Museo Mineroko kide Carmelo Uriartek eta Burnia espeleologi taldekide Ignacio Fernandezek hitz egingo dute.

GETARIA. 'Getariak egindako elkarlaguna' hitzaldia.

Astelehenean, Aitor Bikuñaren eskutik, arratsaldeko 20:00etan, Alondigan. Getaria eta Hirugarren Mundua jardunaldien barruan.

HERNANI. 'Trastornos de alimentación' hitzaldia.

Astelehenean, Biteri kultur etxean, arratsaldeko 14:45ean.

bestelakoak

BILBO. Abarretan. Gaur, arratsaldeko 18:00etan, Bixikan taldearen eskutik. Kafe antzokian.

Olgetan. Bihar, arratsaldeko 18:00etan, T'Ombilgoren eskutik, *Ahots gabeko aitonaren jaia*, Kafe Antzokian.

DONOSTIA. Azoka ibiltaria.

Gaur, goizeko 09:30etik aurrera, Groseko San Frantzisko kalean.

GASTEIZ. Treviño Anaiak

Pailazoak. Gaur, arratsaldeko 18:30ean, Montehermoso kulturguneko Jardín de Falerina kafetegia.

IRUN. Takolo, Pirritx eta

Porrotx. Gaur eta bihar, Amaia KZn, 16:00etan eta 18:00etan.

IRUÑEA. Irrintzi Euskaltegi liburutegirako liburu jasotze kanpaina. Euskarazko liburuak eman nahi badituzue, Donibane auzoko Iratxe Monasterioa karrikako 45.ean uzten ahal dituzue 948-274160. donibane@aeaknet.net

erakusketak

BERRIOZAR. Ismail Hemani.

Urtarrilaren 22tik, hilaren 26a arte, kultur etxean.

HONDARRIBIA. Enrique

Lekuonaren akuarelak. Muara tabernan, urtarrilaren 31 arte.

PASAI DONIBANE. 'Gaitzik

gabeko Lurra'. Angela Magias eta Antonio di Bellonioren argazkiak.

Otsailaren 7a arte.

TOLOSA. 'Gay mugimenduaren

Historia Euskal Herrian. Hezkuntza da bidea'. Urtarrilaren 21a arte, Tolosako Kultur Etxean. EHGA taldeak antolatuta.

ikastaroak

ANOETA. Aisialdiko begiraleak trebatzeko ikastaroa, Urtxintxaren eskutik. 18 urtetik gorakoentzat izango da. 52 orduz.

Izena emateko, udaletxera joan behar da.

BEASAIN. Udal Euskaltegiaren

matrikula egiteko epea zabaldu da. Euskara ikasi, alfabetatu edo EGA prestatu nahi duenarentzat, matrikula epea zabalik da, urtarrilaren 31 arte.

lehiaketak

AZPEITIA. Erriarraitz

Bertsopaper Lehiaketa. Azkoiti, Azpeiti, Beizama, Errezil eta Zestoakoentzat. 18 urtetik beherakoek, 6 bertso gutxienez egin beharko dituzte, 18tik gorakoek, 8 bertso gutxienez, gai librean. Lanak (idazmakina edo ordenagailuz) helbide honetara bidali, otsailaren 24a arte: 265 Postakutxatila. Erriarraitz B.E., 20.730 Azpeitia.